

IDIAZABAL / Liburutegia antolatzeke proposamena egin dezan eskatu zaio enpresa bati

Proposamena edo proiektua Imeguisa Taldeko Liuz enpresa ari da egiten Idiazabalgo Udalak horrela eskatuta.

ESTITXU IMAZ. Idiazabalgo liburutegi berriari buruzko hausnarketa egiten aritu dira idiazabaldarrak. Hainbat ezaugarri zehaztu ondoren, Idiazabalgo Udalak areto berriko espazioa antolatzeke asmoz proposamen bat lantzeko eskatu dio Imeguisa Taldeko Liuz enpresari, eta zeregin horretan dihardu. Ioritz Imaz Idiazabalgo alkateak jakitera eman duenez "proposamena esku artean dugunean berriz bilduko gara eta zenbait erabaki hartuko ditugu.

Idiazabalen liburutegi berria egingo zutela erabaki eta gero, Udaleko kideak etorkizuneko liburutegiak nolakoa izan beharko zuen zehazteko hausnarketa prozesuan murgildu ziren. Liburutegia herritarrek erabiliko dutenez haien iritzia jakin nahi zuen Udalak, eta bilera deitu zuen urtarrilaren 27an. 15 bat lagunek parte hartu zuten orduan. Alkateak, Kultura zinegotziak, herri eskolako zuzendariak, gurasoek, jubilatuek eta liburutegiko arduradunak parte hartu zuten. Imazen hitzetan "aldez aurretik zenbait gaztek euren iritzia eman bazidaten ere, egia esan bilera egunean gazteen presentzia sumatu nuen faltan. Dena den, gainerakoan balorazio txukuna egiten dugula esan behar da, bai parte-hartzeari dagokionez eta baita bertan egindako ekarpenei dagokienez ere.

Bigarren bileran obra bera ikusteko tarte bat hartu zuten, aldez aurretik batzarrean aipatutakoak espazioan nola antola zitezkeen irudikatzeke. Beste herri batzuetako liburutegietako argazkiak ere ikusi zituzten, Villabonako eta Antzuolako liburutegietakoak.

Ondorio ugari

Batzarretan ateratako ondorioen artean zeuden, besteak beste, KZgunea liburutegi-an bertan kokatzea komeni dela, Internet zerbitzu eta guzti. Haur txikientzako gune berezitu bat egotea egokia dela, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko eta txiki-txikitatik haurrak liburu artean ohitzeko. Liburuak kontsultatzera eta ikastera doazen gazte zein helduentzako gune egokia egitea beharrezkoa dela eta irakurtzeko leku txiki bat egitea ere egokia dela, egunkariak eta aldizkariak ikusi eta irakurri ahal izateko. "Horrez gain, jendeak eta baita geuk ere premiazkoa ikusten dugu liburute-giaren erabilera bultzatzeko dinamizazio lan txukuna egitea, eta ordutegi aldetik ere lehenago zegoena baino aukera zabalagoa eskaintzea, gaineratu du Imazek.

Idiazabalgo Udalak oraindik ez du zehaztu ordutegi berria zein izango den, ezta zerbitzua zein modutan antolatuko duen ere. "Liuz enpresak bileran aipatutako ezaugarri horiek guztiak kontuan hartu eta espazioaren antolaketa nola egiten duen ikusi behar dugu lehendabizi. Gero, proposamena esku artean dugunean herri mailako beste bilera bat antolatuko dugu eta haiek aurkeztutakoa egoki ikusten dugun, aldaketarik egin behar zaion, zer erantsiko geniokeen erabaki beharko dugu, izan ere oraindik ez baitago ezer itxita. Dena den, Udalak liburutegi berria ahalik eta azkarren martxan egotea nahi du.

Udaletxea eraikin berrian izango da 26tik aurrera

Liburutegiaren eraikin berean egongo da udaletxe berria ere. Lanak bukatuta daude. Eraikinaren ingurunea urbanizatzea eta balkoian armarrria jartzea falta da. Orain altzariak jartzen ari dira udaletxe berrian, eta artxiboa tokiz egunotan aldatuko dute udal langileek. Apirilaren 23an aldatuko dituzte beste zenbait gauza, eta udaletxea itxita egongo da egun horretan. 26tik aurrera, berriz, eraikin berrian egongo da.